



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
18/02/09

La Encartada Museoak aurton 13.000 bisitariren kopurua gainditzeko helburua planteatu dau Kulturako Diputatuak

Lorea Bilbao Euskera eta Kulturako diputatu andreak, Boinas La Encartada museoak aurton 13.000 bisitariren kopurua gainditzeko helburua iragarri dau gaur goizean. Horretarako 110.000 euroko zuzkidurea izango dau. Podemos Bizkaia taldeak eskatutako agerraldia Batzar Nagusietako jagokon batzordean egin dau.

Lorea Bilbaok azaldu dauenez, helburu hori lortzeko lau gako emon behar dira: industria arloko ondare parebakoaren aprobetxamendua; emakumearen lana balioan jartea; erlazinoa modaren munduagaz; eta La Encartada, diseinuagaz erlazionautako sorkuntza leku bilakatzeko aukerea.

Horrez gain, diputatu andreak hobekuntzak iragarri ditu garraiobideetan eta Museoaren seinaleztapenean. Gainera, hainbat jarduera jasoko dituan plan bat azaldu dau. Jarduera horreen artean, lantegian egiten ziran beharren antzezpena, modagaz erlazionautako topaketak, jarduerak goi joskintzako Javier Barroeta joskinagaz eta bertako beste diseinugile batzuekaz, inguruko gazte sortzaile batzuen beharraren erakusketak edo industria arloko ondarearen gaineko topaketak egongo dira.

EUROPAKO ERRUGBI TXAPELKETETAKO FINALAK

Aldundiko arduradunak, maiatzean Bilbon jokatuko diran Europako errugbi txapelketen finalak dirala eta EH Bildu taldeak egindako bigarren agerraldi eskariari be erantzun deutso. Ekitaldi horrek Bizkaiaren nazinoarteko promozinoari jagokonez izango dauen garrantzia eta gure lurraldeak nazinoarteko kirol ekitaldi handiak jasoteko dauen gaitasuna azpimarratzeaz aparte, Lorea Bilbaok futbola ez dan kirol bat bultzatzeko ekarriko dauen aukerea be aitatu dau. Diputatuak gogorarazo dauenez, kirol horren balioen artean kirolarien arteko errespetua eta zaleen artean sortzen dan jai giroa dagoz. Beste ekimen batzuk be zehaztu ditu, Euskal Museoan egingo dan bertako errugbiaren historiaren gaineko atzera begirako erakusketea, edo Areatzan egongo dan *Fan Zonearen* inguruan gauzatuko diran jarduerak.

Agerraldia eskatu dauen taldearen izenean, David Lopategi batzordekideak “olatua baliu” behar dala iragarri dau, txikiaren artean oinarrizko errugbia bultzatzeko eta “ekitaldi horren inguruan jarduera barriztaileak sustetako, oraindino horretarako garaiz gagoz eta”. Gainerako taldeak bat etorri dira ekitaldia Bizkaiaren promozinoa egiteko eta kirol hori bultzatzeko aukerea dala esatean.

Eguneko gai zerrendea, umeei eta gazteei Bilboko Guggenheim Museoaren lagunen urteko karneta eskuratzeko aukerea zabaltzearen inguruko azterlana egiteko Talde

Mistoak aurkeztu eta Podemos Bizkaia taldearen zuzenketa-eskea jaso dauen Arauz Besteko Proposamenak osatu dau. Proposamena aurkeztu daben taldeez aparte, Talde Popularra eta EH Bildu be alde agertu dira, baina Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek kontrako botoa emon dabe.

NOTA DE PRENSA

09/02/18

La Diputada de Cultura plantea el objetivo de que el Museo La Encartada supere este año la cifra de 13.000 visitantes

La Diputada de Euskera y Cultura, Lorea Bilbao, ha anunciado esta mañana el objetivo de que el Museo de Boinas La Encartada supere este año la cifra de 13.000 visitantes, para lo cual contará con una dotación de 110.000 euros. Esta comparecencia, solicitada por Podemos Bizkaia, se ha desarrollado en la Comisión correspondiente de las Juntas Generales.

Lorea Bilbao ha explicado que para lograr este objetivo se van a conjugar cuatro claves: el aprovechamiento de un patrimonio industrial único; la puesta en valor el papel de la mujer; la relación con el mundo de la moda; y la posibilidad de convertir La Encartada en un lugar de creación relacionado con el diseño.

La Diputada ha anunciado también mejoras en los medios de transporte y en la señalización del Museo. Asimismo, ha expuesto un plan de actividades que incluye teatralización de las labores que se llevaban a cabo en la fábrica, encuentros relacionados con la moda, actividades con el modisto de alta costura Javier Barroeta y otros diseñadores locales, muestras del trabajo de jóvenes creadores del entorno, o encuentros sobre patrimonio industrial.

FINALES EUROPEAS DE RUGBY

La responsable foral ha respondido a una segunda solicitud de comparecencia, por parte de EH Bildu, en relación a las finales de rugby europeo a celebrar en Bilbao en mayo. Además de incidir en la relevancia de este evento en cuanto a promoción internacional de Bizkaia y de la capacidad del territorio para acoger grandes acontecimientos deportivos internacionales, Lorea Bilbao ha señalado la oportunidad que supone para promover un deporte distinto al fútbol, que cuenta con valores como el respeto entre deportistas y el ambiente festivo entre aficiones. También ha concretado iniciativas como una exposición retrospectiva de la historia del rugby local en el Museo Vasco, o las actividades que se desarrollarán en torno a la *Fan Zone* en El Arenal.

En nombre del grupo solicitante de la comparecencia, el juntero David Lopategi ha insistido en la necesidad de “aprovechar la ola” para fomentar el rugby de base entre los más pequeños y “promover actividades novedosas en torno a este evento, para lo que aún

estamos a tiempo”. El resto de los grupos han coincidido en la oportunidad que supone este evento para la promoción de Bizkaia y la difusión de este deporte.

El orden del día lo ha completado la votación de una Proposición No de Norma, a iniciativa de Grupo Mixto y enmendada por Podemos Bizkaia, en torno a realización de un estudio para que los niños y jóvenes puedan optar un carnet anual individual como amigos del Museo Guggenheim Bilbao. La iniciativa ha sido apoyada, además de los proponentes, por Grupo Popular y EH Bildu, pero ha sido rechazada al contar con el voto negativo de Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos.